

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2568

EBAZPENA, 2016ko ekainaren 3koa, Justizia Administrazioko zuzendariarena, jarraian zehazten diren kidegoetako lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioen lan-poltsak osatuko dutenen behin-behineko zerrenda onartzeko dena: Auzitegi Medikuen Kidegoa, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoa, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoa eta Laguntza Judizialeko Kidegoa.

2016ko martxoaren 1eko Ebazpen baten bidez, Auzitegi Medikuen Kidegoko, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko eta Laguntza Judizialeko Kidegoko lan-poltsak osatzen dituztenen datuak ireki eta gaurkotu ziren; betiere, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko irailaren 16ko Aginduak emandako eskumenez baliatuta; izan ere, agindu horren bidez, aipatutako kidegoetan (Auzitegiko Medikiak, Prozesu eta Administrazio Kudeaketa, Prozesu eta Administrazio Izapidetza eta Laguntza Judiziala) lanpostuak betetzeko bitarteko funtzionarioak aukeratu, proposatu eta izendatu ziren (Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2014-05-19ko Aginduaz aldatu zen agindu hori).

Lan-poltsa horietan direnen behin-behineko zerrenda prestatu da, 2010eko irailaren 16ko Aginduko 5. artikuluan eta 2016ko martxoaren 1eko Ebazpenean aurreikusitakoaren arabera. Horrela, bada, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Justizia Administrazioko Auzitegiko Medikuen, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioen lan-poltsetan daudenen behin-behineko zerrenda onartzea, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako EATetako iragarki-oholetan, www.justizia.net web-orrian eta Justiziako pertsonalaren atarian argitaratzeko agintzea.

2.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek hamar eguneko epea izango dute erreklamazioa aurkezteko Justizia Administrazioko Zuzendaritzan, behar bezala dokumentatuta eta behin-behineko zerrendan jasotako datuetako edozeini dagokionez.

3.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2010eko irailaren 16ko Aginduko 4.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta poltsak ordenatzearen, berdinketarik bada, lehentasun alfabetikoaren (J letratik hasita) irizpidea kontuan izanik ebatziko da, azken lan-eskaintza publikoari dagokionez (2014ko maiatzaren 19ko Aginduaz aldatu zen agindu hori).

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 3a.

Justizia Administrazioko zuzendaria,
JON ARTURO URIARTE UNZALU.